

**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**2018ko MAIATZAREN 3an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2018ko maiatzaren 3an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

**ZINEGOTZIAK:** Gotzon Jauregi Sarasola  
Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre  
Ander Leon Nanclares  
Angel Serrano Martinez  
Aritz Sarria Saraqueta


Bilkura honetara ez da bertaratzen: Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala bada/gokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
    - **2018ko apirilaren 12an egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 12 de abril de 2018.**
  - 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
  - 3. Bake epailea eta bere ordezkoa hautatzeko deialdiaren onespena, hala bada/ Convocatoria para la selección de Juez de paz y su sustituto..**
  - 4. Sorozelai 42 eskubia eta ezkerreko etxebizitzetan portxea egiteko obra baimena eskaera, B.V./ Solicitud de licencia de obra para la construcción de porche en Sorozelai 42 dch. e izq. a petición de B.V.**
  - 5. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko 2017ko ekitaldiko ekarpenaren likidazioaren berri ematea, hala bada./ Dar cuenta de las aportación realizadas a Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea-ri del ejercicio 2017.**
  - 6. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
  - 7. Beste batzuk/Otros.**
  - 8. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**
- 8.1.Asunzion Klinikako (Inviza) langile batzordeak aurkezturiko mozioaren azterketa, hala bada/Estudio de la moción presentada por el Comité de empresa de la Clínica de la Asunción.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

.../...

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.**

- ▣ 2018 urteko apirilaren 12ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

10//2018 Alkateza Ebazpena, apirilaren 17koa, 2019 urterako Larraulgo Udalerriko jaiegun bezala abuztuaren 3-a finkatzea, ebazten duena.

11/2018 Alkateza Ebazpena, apirilaren 23koa, Iberdrola Clientes SAU enpresari esleitzea Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez energia elektrikoaren hornidura kontratua, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### **BAKE EPAILEA ETA BERE ORDEZKOA HAUTATZEKO DEIALDIAREN ONESPENA, HALA BADA**


Ikusirik 2018 urteko apirilaren 16an Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkariak igorritako idatzia, non adierazten duen Larraulgo Bake Epailea eta bere ordezkoa izendatuak izan ziren lau urteetako epea amaitzeaz dagoela eta Udalbatzarrak beste lau urtetarako izendatuak izan daitezkeen Bake Epaile berria eta bere ordezkoa proposatu behar dituela.

Ikusirik 2018 urteko apirilaren 27an Udaleko Behin Behineko Idazkari Kontuhartzaileak idatzi duen txostenean dioena, zeinetan adierazten duen zein prozedura jarraitu behar den Bake Epailea eta bere ordezkoa hautatzeko eta zeintzuk diren hautagaiek bete beharreko baldintzak.

Gaia aztertutik Udalbatzarrak aho batez ondorengoa,

*ERABAKITZEN DU*

LEHENA.- Larraulgo Udalerrian lau urteetarako izendatuko diren Bake Epailea eta bere ordezkoa hautatzeko deialdia egitea. Modu honetan hautagaiei legeak ezarritako baldintzaz gain ondorengoa baldintza galdutuko zaie: hautagaiak euskaraz jakitea.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA.- Deialdiaren iragarkia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko Iragarki Taulan, web orrian eta Tolosako Lehen Instantzia eta Instrukzio Epaitegian. Aldi berean Larraulgo herrian zehar deialdiaren bandoa zabalduko da. Modu honetan izen emateko epea zabalduko da iragarkia aipatu den tokietan argitaratu eta gehienez Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost lanegunetako epean.

### LAUGARREN PUNTUA

### **SOROZELAI 42 ESKUBIA ETA EZKERREKO ETXEBIZITZETAN PORTXEA EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, B.V.**

Ikusirik B.V. andreak eginiko eskaera, non Sorozelai 42 eskubia eta ezkerreko etxebizitzetan portxea egiteko obra baimena eskaera egiten du.

Ikusirik, 2018ko apirilaren 30ean, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

### **“LARRAULGO SOROZELAI 42 ETXEAN, PORTXE BAT EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA**

B.V.O. andreak, Sorozelai 42 etxearen atzealdean portxe bat egiteko baimena eskatzen du, gaur egungo egoera eta proposamena adierazten duten bi plano eta egin beharreko lanen aurrekontu bat aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**

Aurkeztutako eskarian, 42º zenbakia osatzen duten bi etxeentzat 29,24m<sup>2</sup> ko azalera izango duen portxe bat moldatu nahi dela esaten da. Portxea hegoaldeko fatxadan kokatuko da eta honen egitura, metalikoa eta egurrezkoa izango litzateke teilazko estaldura batekin. Estalpeak ez du hegalik. Lan hauen aurrekontua BEZ-a gabe 4.595€-koa izango litzateke.

Larraulgo Arau subsidiarioen 14º artikulua esaten duen bezala, eraikinaren kanpo itxuraren aldaketek udal lizentzia behar dute.


Sorozelai 42 etxea Larraulgo lur hiritargarran kokaturik dago, bereziki A.I.U.4.1 ELIZALDE II unidatean.

Larraulgo etxebizitza erabilerarako hiri lurreko ataripeen ordenantzaren 4º artikulua honela dio;

#### **Art. 4 Condiciones técnicas y constructivas**

*Se establece que en las parcelas privadas no edificables se admitirán porches en planta baja o en terrazas de todas las tipologías edificatorias, siempre que se cumplan las siguientes condiciones:*

- *Se construirán anexos al edificio principal y sus dimensiones **máximas** serán:*
  - . *Altura a cumbre: 3,5 m.*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- . *Altura máxima al alero horizontal 2,50 m.*
- . *Largo: el de la fachada a la que va anexo.*
- . *Fondo: 4,0 m. (proyección de la cubierta en planta).*
- . *Pendiente de la cubierta: 35%.*
- . *Superficie: 15m<sup>2</sup> por vivienda (medida sobre la proyección horizontal de la cubierta)*
- . *El vuelo máximo del alero respecto será de 1,00 m*

- *Los materiales a emplear para su construcción serán:*

- . *Estructura: de madera, de obra revestida con material similar al empleado en fachada, o metálico lacado o pintado en colores apropiados.*
- . *Cubierta: Se terminará con teja cerámica en su color natural, teja de hormigón de color y textura similares a la cerámica o vidrio. Se prohíbe la utilización de materiales como las placas de fibrocemento, asfálticos, pizarras, chapas metálicas, etc...*

- *Los porches serán abiertos; **no podrán cerrarse** mediante ningún sistema ni material.*

- *Los espacios ajardinados privados que surjan en las parcelas deberán recibir tratamiento de jardinería al menos en un 50% de su superficie.*

- *La distancia entre cualquier punto del vuelo del porche hasta el límite de la parcela, edificio o terraza colindante será de 2,0 m.*

*Las viviendas bifamiliares o adosadas, quedan exentas del cumplimiento de este retranqueo, siempre que exista acuerdo de los vecinos afectados. En este caso, los propietarios deberán formular un proyecto unitario que desarrolle una solución de conjunto de la fachada, y siempre que exista compromiso escrito de una ejecución futura por todos los propietarios afectados.*

**Proposatzen den portxearen gailurra, ordenantzak arautzen duen gehienezko 3,50m ko alturara egokitu beharko da.**

Portxea ezingo da itxi inolako sistema edo materialeen bitartez eta ataripearen edozein punturen eta alboko lursail edo eraikinaren arteko distantzia 2m koa izango da gutxienez.

Hau honela bada, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait.


\*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

\*Lanak amaitzean, eraispén-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean”

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU

LEHENA: B.V. andreak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Sorozelai 42 etxean, ezker-eskuin, portxea egiteko obra baimena ematea, betiere, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen baditu.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**BIGARRENA:** Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri interesdunari ematea.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

### **AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAK AURKEZTURIKO 2017KO EKITALDIKO EKARPENAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA**

Ikusirik, Aiztondo zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko 2017ko ekitaldiko ekarpenaren kitapena, ondorengo emaitzak izan dituela:

2016 urteko superabita: 2.493,04 euro

2017 urteko superabita: 3.811,14 euro

Kontutan izanik, Aiztondo zerbitzuen Mankomunitateko udal ordezkarien adostasunez, diru poltsa bat utzi behar dela Aiztondo Mankomunitatean, Larraulgo Udalaren kasuan 5.400 euro izanik.

Hau guztia kontutan izanik, Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak Larraulgo Udalari 904,18 eurotako diru kopurua itzuli behar dio.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:


**LEHENGOA.-** Aiztondo zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko 2017 ekitaldiko ekarpenaren kitapena onestea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	856,04
GOTZON JAUREGI	83,08
KIROLZER	49,35
SETALDE	614,73
TOLOMENDI	155,55
MANPEL	30,19
TOLOSAKO UDALA	53,59
TOLOSAKO UDALA	30,62
TOLOSAKO UDALA	15,32
TOLOSAKO UDALA	53,59



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

TOLOSAKO UDALA	45,94
BELARMENDI	148,59
ASTEASUKO UDALA	90,00
ASTEASUKO UDALA	716,58
CASER	44,76
SETALDE	154,66
SETALDE	228,98
IZFE	2.052,45
OSTARBI ERAIKUNTZA	3.509,97
IBERDROLA	164,23
IBERDROLA	69,18
IBERDROLA	169,29
IBERDROLA	128,67
NORTEGAS	172,69
NORTEGAS	215,04
NORTEGAS	539,07
MOVISTAR	134,94
MOVISTAR	79,63
MOVISTAR	18,56
MOVISTAR	15,81
MOVISTAR	18,15
MOVISTAR	26,62
MOVISTAR	53,53

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengo,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **10.739,40** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**


#### **BESTE BATZUK**

**Ez dira aurkezten.**

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

#### **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

#### **8.1.ASUNCION KLINIKAKO (INVIZA) LANGILE BATZORDEAK AURKEZTURIKO MOZIOAREN AZTERKETA, HALA BADA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ELA eta LABeko hautetsiez osatuta Invizako langile batzordeak proposatutako mozioaren berri ematen da, ondorengoia diolarik:

*“Asunzion Klinikako (Inviza) langile batzordeak ESKATZEN DU MOZIO hau azter dadila Larraulgo Udalaren Udalbatzan eta deitzen ditugu Udal taldeak onartu dezatela.*

*Asunzion Llinikak eskualdeko hospital publiko lanak egiten ditu E.S.I. aren barruan. Diru publikotik 20 milioi euroko diru laguntza jasotzen duen klinika pribatua da, eskualdeari osasun arreta eman asmoz.*

*2013 urtetik hitzarmen bat negoziatzen saiatzen ari gara, baina enpresaren jarrera, naiz eta osasun sailetik negozio seguru izan, eta beraien nahia dela akordiora iristea esan, bere jarrerarekin erakutsi du hori ez dela horrela.*

*Guk lan publikoa egiten dugunez, gure lan baldintzak osakidetzarekin berdinduak izan behar dutela uste dugu.*

*Ezin dugu ahaztu ospitale publikorik ez duen EAeko eskualde bakarra garela. Eta gure baldintzak prekarioak diren heinean eskaintzen den arretak ezin du kalitatezkoa izan.*

*Hau guztia dela eta, BORONDATE POLITIKO BATEZ ari garela uste dugunez, UDAL HONI ESKATZEN DIOGU:*


- 1.-Hitzarmen duin bat sina dezatela eska diezaiola enpresari.*
- 2.-Herritarron diruaren jarraipen zehatz bat egin dadila, kalitatezko osasun zerbitzu bat, eta lan baldintza egokiak berretsiko dituen.*
- 3.-Berretsi dadila Tolosadean kalitatezko osasun publikoa, doakoa, unibertsala eta gainontzeko eskualdeetako berdina izatea.*
- 4.-Udalak eska dezala Osasun sailarekin dagoen hitzarmena bete dadila; bereziki azpiegitura, langileria eta 3.2.1-3.2.2-3.2.4-3.2.5-3.3.2-3.3.4 puntuetan.*
- 5.-Bidali diezazkiela Udal honek onartu dituen erabakiak Gasteizko gobernuari.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ELA eta LABeko hautetsiez osatutako Invizako langile batzordeak aurkezturiko mozia bere osotasunean onesten du.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.15 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA



**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

